

COVID-19 AUTONOMOENTZAKO LAGUNTZAK. EHAA

50/2020 DEKRETUA, martxoaren 31koa, enpresa txiki eta ertainei, banakako enpresaburuei eta profesional autonomoei diru-laguntzak emateko programa garatzen duena 2020rako, Covid-19ren inpaktu ekonomikoari erantzuteko asmoz.

GAI OROKORRAK

- Dekretuak profesional autonomoentzako finantzaketa-lerro bat arautzen du: hura eskuratzeko baldintzak eta prozedura.
- Helburua: banku-finantzaketa eskuratzeko aukera ematea, 2020ko martxoaren 1etik Aurrera, aipatutako eragile ekonomikoen kolektiboaren 6 hilabeteri dagozkien egitura-gastuen likidezia- eta finantzaketa-premiei erantzuteko.

AUTONOMOEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresaburu indibidualak eta profesional autonomoak, hau da, baldintza hauek betetzen dituztenak:
 - Norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian alta emanda egotea.
 - Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako jarduera ekonomiko edo profesionalen etekinak lortzea.
- Laguntzak eskatzeko, beharrezkoa da enpresa kaudimengabezia kolektiboko prozedura batean sartuta ez egotea; era berean, konkurtso arauen-arabera, ezin ditu, hartzekodunek eskatuta, kaudimengabezia kolektiboa jasateko baldintzak bete eta Foru-Aldundiekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izan behar ditu.

SITUACIONES FINANCIABLES

- 6 hilabeteri dagozkien likidezia-beharrak babesteko eta egitura-gastuak finantzatzeko zuzenduta dauden finantzaketa-eragiketak izango dira finantzarriak.

FINANTZAKETA ERAGIKETAK

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta finantza-erakunde laguntzaileek lankidetzaren hitzarmenak sinatuko dituzte, enpresa eta pertsona onuradunen aldeko finantzaketa-eragiketak formalizatzeko asmoz
- Elkarren bermerako sozietate laguntzaileak eskainitako finantza-abalek enpresa eta pertsona onuradunen diru-arriskuak bermatuko dituzte, zuzenean edo zeharka, finantzaketa-eragiketetatik eratorritako Finantza-Erakunde laguntzaileen aurrean.

ABALEN KOSTUA ETA BALDINTZAK:

- Formalizazio-komisioa eta azterketa-komisioa: formalizatutako abalaren% 0,25, eta behin bakarrik, eragiketa formalizatzen den unean.
- Abal-komisioa:% 0,75 urtean (*). Aldez aurretik aplikatuko da, urtarrilaren 1ean, abalatutako mailegu bakoitzaren urte bakoitzeko data horren saldoaren arabera. Formalizatzen den urtean zein behin betiko mugaeguneratzen den urtean, besteko saldoaren gainean aplikatuko da era proportzionalan, urtea amaitu arte edo mugaegunera arte igarotako egun-kopuru osoa kontuan hartuz.
- Elkarren bermerako sozietate laguntzailearen partaidetza sozialak harpidetzea eta ordaintzea, abalatutako eragiketaren zenbatekoaren% 2ko balioan; partaidetza horiek itzulgarriak izango dira eragiketa erregulartasunez kitatzen denean.
- Elkarren bermerako sozietate laguntzaileak ez du inolako komisio edo gastu gehigarriarik aplikatuko.

ZENBATEKOA

- Maileguren zenbatekoa 5.000 euro eta 100.000 euro artekoa izango da banakako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat.

PROZEDURA

- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako deialdian agertuko da, eta publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak jarraituko ditu.
- Ogasun eta Ekonomiako Sailburuaren Agindu bidez burutuko da, eta erabilgarri dauden baliabideen zenbateko osoa, eskabideak aurkezteko epea eta lekua eta prozeduraren beste zenbait alderdi zehaztuko ditu, finantza-erakunde laguntzaileen zerrenda barne.
- **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:** banakako enpresaburuek eta profesional autonomoek dokumentazio hau bete beharko dute:
 - a) Eskabidea, eranskinetako F1A formularioan jasotako ereduaren arabera.
 - b) Erantzukizunpeko adierazpena (eranskinetako F2A formularioa), eskabidean jasotako alderdiak benetakoak direla adierazten duena.
 - c) Foru Aldundiaren ziurtagiria, non profesionalak altan dagoen Ekonomia-Jardueren Gaineko zergaren epigrafea agertzen den.
 - d) Zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko beharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - e) Eskatzailearen ondasunen aitorpena.
 - f) 2018ko PFEZaren aitorpena eta 2019ko sarrera-gastuen betearazpena.

g) Egitura-gastuak babesteko finantzaketa-beharrak deskribatzen dituen memoria, titularrak burutua (eranskineko F3 inprimakia).

h) 38/2003 Legearen 13. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen direla ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.

ESKABIDEAK: Eskabideak eta gainerako agiriak elkarren bermerako sozietate laguntzaileei zuzenduko zaizkie, bide telematikoz.

Interesdunek informazioa eta eskabide-inprimakiak eskuratu ahal izango dituzte www.euskadi.eus atarian.

FORMALIZAZIOA

- Elkarren bermerako sozietate laguntzaileak ziurtatzen den mailegu-eragiketarako "abala baimentzeko dokumentua" onartu ondoren, eta dokumentu hau dagokion lankidetzeta-hitzarmena sinatu duen finantza-erakundeari igorri ostean, enpresa edo pertsona eskatzaileak eragiketa hori formalizatuko du finantza-erakundearekin.

FORMULARIOS ANEXOS

- Hainbat formulario daude Dekretuan bertan (letra lodiz, dokumentazioarekin batera aurkeztu beharrekoak, profesional autonomoen kasuan):
- F1P.– Eskabide-orria.
- F2P.– Erantzukizunpeko adierazpena.
- **F3.– Egitura-gastuen beharrak deskribatzen dituen memoria.**
- **F1A.– Eskabide-orria.**
- **F2A.– Erantzukizunpeko adierazpena.**
- F4.– Abala baimentzeko dokumentua.